

Parketarrak urriaren 7tik 25era antolatuko da Donostiako 22 jolasgunetan

Auzoetan euskaraz jolasean aritzeko

2024-2025 ikasturteko Parketarrak ekimenaren lehen txanda egingo da urrian. Izan ere, Parketarrak egitasmoa urrian, martxoan eta maiatzean antolatzen da, astelehenetik ostiralera, 3 astez hilabete bakoitzean. Oraingoan, urriaren 7tik 25era egingo da Donostiako parke eta plazetan eta jolasean euskaraz aritzeko aukera izango dute hurrek eta familiek.

Hiriko 22 jolasgunetan begiraleak egongo dira euskarazko jolasak dinamizatzeko. Parketarrak doakoa da, eta, parte hartzeko, parkera joan, eta dinamizatzaileekin jolasten hasi besterik ez da egin behar. Adina kontuan hartzen da ekimena garatzeko: Zabu Zibu programan, 3-5 urte arteko hurrekin eta haien arduradunekin aritzen dira; eta Txirrintxon programan, 6-9 urte bitarteko umeekin. Jolasa da jarduera honen funtsa, erreminta ezin hobea delako hizkuntza barneratzeko, eta jolasguneetan egongo diren dinamizatzaileek gidari lanak egingo dituzte.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak auzoetako euskara batzordeekin elkarlanean antolatzen du Parketarrak. Hiru asteko txanda horietan, saioak astelehenetik ostiralera izaten dira. Auzo bakoitzak bere asteguna dauka, eta informazio guztia txandak hasi aurretik zabaltzen da.

Urteak ditu Parketarrak egitasmoak. Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta auzoetako euskara batzordeek antolatzen dute elkarlanean. Hizkuntzaren erabilera aisialdian indartzeko asmoz sortu zen egitasmoa familiak nahiz umeak kalean jolasean ari direnean euskara erabiltzeko.

Eskola orduz kanpoko euskarazko jardunaren garrantzia

Haurren lehenengo hilabete eta urteetan garrantzitsua da etxeko giroa eta arlo ludikoa euskaraz lantzea. Gero, umea handitzen doan heinean, harreman sareak eratzen hasten da,

Prentsa Oharra

eta, une horretan ere, laguntxoekin euskaraz ongi pasatzen duten bitartean. lagunarteko hizkera indartzen dute eta komunikazio-ohiturak euskaraz eraikitzen dituzte.

2024ko maiatzean 1000 haurrek eta 250 bat gurasok parte hartu zuten

Uda aurreko txandan, maiatzean, 1.000 haurrek eta 250 gurasok parte hartu zuten. Datuok adierazten dute jarduera diberitigarria eta erakargarria dela, eta haurrek zein helduek gustura parte hartzen dutela.

PARKETARRAK 2024-25 ikasturtea				
EGUNAK	AUZOA	Zabu Zibu 3-5 urte	Txirrintxon 6-9 urte	LEKUA
URRIAK 7, 14, 21 MARTXOAK 3, 10, 17 MAIATZAK 5, 12, 19 astelehenak	ALTZA HERRERA	17:00		San Luis Gonzaga plaza, Herrera ondoan. Euriarekin, zubi azpian.
	MORLANS	17:30		Leire plaza
	BIDEBIETA	17:00		Julio Urkixo ibilbidearen parkea
	AÑORGA	17:00		Amassorrain ikastetxeko patioa
	LOIOLAKO ERRIBERAK	17:30	17:30	ZZ: Santiago plaza T: Maria Zambrano plaza
	EGIA	17:30	17:30	Luis Martin Santos plaza
URRIAK 8, 15, 22 MARTXOAK 4, 11, 18 MAIATZAK 6, 13, 20 astearteak	ZUBIETA	17:00		Herriko plaza
	AMARA BERRI: KARMELO	17:00		Rafael Ruiz Balerdi parkea
	MARTUTENE	17:00	18:00	Martuteneko parkea, ikastola ondoan. Euriarekin ikastolako patioan.
	ALDE ZAHARRA	17:00	17:00	Zuloaga plaza. Euriarekin, bertako aterpean.
	ANTIGUA	17:15	18:15	Mikel Laboa plaza, lehengo Gorgatxo plaza. Euriarekin, frontoian.
	EGIA: ATOTXA	17:00	18:00	Atotxa Zelaia plaza
URRIAK 9, 16, 23 MARTXOAK 5, 12, 19 MAIATZAK 7, 14, 21 asteazkenak	ALTZA CASARES	17:00		Casares Kultur Etxearen parean.

Prentsa Oharra

URRIAK 10, 17, 24 MARTXOAK 6, 13, 20 MAIATZAK 8, 15, 22 ostegunak				Euriarekin, Kultur Etxe barruan.
	AMARA BERRI	17:00	17:00	Ferrerias plaza, Olaeta kalea. Eriarekin, ikastetxeko patioan.
	AMARA	17:00	18:00	Araba parkea. Euriarekin, Sahats plazan.
	EASO: ARROKA PLAZA	17:00	18:00	Easo: Arroka plaza
	INTXAURRONDO	17:00		Bernart Etxepare plazatxo. Euriarekin, Intxaurrendoko ikastolako patioan.
	GROS NAFARROA BEHERA	17:00	18:00	Nafarroa beheera plaza
	IGELDO	17:45		Igeldoko plaza
	AIETE	17:00	17:00	Hiru Damatxo plaza
URRIAK 11, 18, 25 MARTXOAK 7, 14, 21 MAIATZAK 9, 16, 23 ostiralak	IBAETA	17:30	17:30	Karlos Santamaria plaza. Euriarekin frontoian.
	GROS KATALUNIA	17:00		Katalunia plaza

Zabu Zibun arduradunekin parte hartu behar dute umeeak.

Informazio gehiago: www.donostiaeuskaraz.eus